

CIRCULAR 56/2022 : ATESTADOS AVANTIUS

San Sebastián, a 1 de diciembre de 2022

Estimada compañera:

Con la implantación del Portal de Servicios Profesionales (PSP) en AVANTIUS, hemos advertido que pueden estar produciéndose incidencias comunicadas al Gobierno Vasco para su consideración y, en su caso, corrección.

La implantación del sistema AVANTIUS tiene como fundamento dar cumplimiento a las previsiones de la Ley 18/2011 de 5 de Julio, Artículo 230.1 de la LOPJ y 273.1 de la LEC y alcanzar con ello el Expediente Judicial Electrónico de una forma plena.

Hemos detectado la preocupación de algunos de vosotros por la digitalización de las actuaciones penales y las posibles dificultades de acceso a los Atestados.

Algunos nos habéis trasladado que en los Juzgados su personal os está informando que el Atestado no se va a entregar en papel por la obligación de todos los profesionales relacionados con la Justicia y disponer de medios telemáticos relacionados con ella.

No alcanzamos a conocer con qué facultad y conocimiento lo realizan.

Siendo cierto también lo es, que misma relevancia si no mayor es que la relación tiene que realizarse en un entorno seguro, con sistemas accesibles y operativos y por ello con unas mínimas condiciones de seguridad, accesibilidad y operatividad.

Por ello el 2 de noviembre pasado mantuvimos una reunión en la sede del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco para trasladar, entre otras, esta concreta valoración para que el Derecho de Defensa de las personas no desaparezca, se vea mermado o limitado y con ello vulnerado un Derecho Fundamental con la correspondiente consecuencia legal.

Por los participantes en la reunión se recibió la aportación realizada, trasladando la intención de estudiar cuales tienen que ser las condiciones mínimas de seguridad, operatividad para acceder al Atestado y estudiar la mejor solución transitoria, disposición que se mantenía el 29 de noviembre pasado y sin que hasta la fecha hayamos recibido ninguna otra información.

Os mantendremos informados.

56/2022 ZIRKULARRA: AVANTIUS ATESTATUAK

Donostia, 2022ko abenduaren 1a

Lankide agurgarriak:

Profesionalentzako Zerbitzuen Atarian (PZA) AVANTIUS ezarri zenetik gorabeherak izaten ari direla ikusi dugu; Eusko Jaurlaritzari jakinarazi dizkiogu, aztertu eta, hala badagokio, zuzentzeko.

AVANTIUS sistema ezartzearen xedea uztailaren 5eko 18/2011 Legeak, BJLOren 230.1 artikulua eta PZLren 273.1 artikulua ezarritakoa betetzea da, eta horrekin Espediente Judizial Elektronikoa osoki lortzea.

Ikusi dugu zuetako batzuk kezkatuta zaudetela jarduera penalen digitalizazioarekin eta atestatuak eskuratzeko egon daitezkeen zailtasunekin.

Batzuek helarazi diguzue epaitegietako langileak atestaturik paperean entregatuko ez dela jakinarazten ari direla, Justiziarekin zerikusia duten profesional guztiek, Justiziarekin harremanetan jartzeko, baliabide telematikoak izateko betebeharra dutelako.

Ez dakigu zein ahalmen eta ezagutzarekin egiten ari diren hori.

Egia da, halaber, garrantzi bera duela, handiagoa ez bada, harremanak ingurune seguru batean egiteak, sistema irisgarri eta operatiboekin, eta, horregatik, gutxieneko segurtasun-, irisgarritasun- eta eraginkortasun-baldintzak bete behar dira.

Hori dela eta, joan den azaroaren 2an bilera egin genuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren egoitzan, besteak beste, balorazio zehatz horren berri emateko, pertsonen defentsarako eskubidea desagertu, murriztu edo mugatu ez dadin, eta, ondorioz, oinarrizko eskubide bat urratzen bada, dagokion legezko ondorioa izan dezan.

Bileran parte hartu zutenek egindako ekarpena jaso zuten, eta atestaturik eskuratzeko gutxieneko segurtasun- eta eraginkortasun-baldintzak zein izan behar diren ikertzeko eta irtenbide iragankorrik onena aztertzeko asmoa helarazi zuten. Asmo horrek ere azaroaren 29an jarraitzen zuen eta orain arte ez dugu beste informaziorik jaso.

Jakinaren gainean izango zaituztegu.